



Docentiaz

Ebaluazio Zerbitzua
Servicio de Evaluación

DOCENTIAZ

IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA
JARDUERAREN EBALUAZIO
PROGRAMA

HAMAIKAGARREN DEIALDIKO OINARRIAK

2021

ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y COMUNICACIÓN

1.- DEIALDIAREN HELBURUA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) irakasleen irakaslanaren kalitatea aitortzea eta hobetzea du helburu DOCENTIAZ programaren hamaikagarren deialdiak, baita irakaslan horri buruz informazio fidagarria eta egiaztatua emango duen prozedura bat ahalbidetzea ere.

2.- DEIALDIRA AURKEZ DAITEZKEENAK

Deialdi honetara aurkez daitezke, eskariak aurkezteko deialdiaren epean, kontratua indarrean duten UPV/EHUko irakasleak, funtzionarioak zein lan kontratadunak, arduraldi osokoak zein partzialekoak. Programan sartzen dira UPV/EHUn ematen diren ikasketa ofizial guztiak (graduak, masterrak eta doktoregoko ikasketak). Programatik kanpo geratzen dira goi mailako beste erakunde batzuetan eta UPV/EHUko berezko tituluetan egindako irakaslanak.

Deialdi honetan, GAURren kredituak aitortuta dituzten bost ikasturtetako ebaluazio aldiko merezimenduak ebaluatuko dira, hau da, 2015/16 ikasturtetik 2019/20 ikasturtera bitartekoak. Ezin dira aurkeztu hamaikagarren deialdi honetara 2015/16-2019/20 ebaluazio aldian ikasturteren bat ebaluatua duten irakasleak.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dituzte karrerako irakasle funtzionarioek, lan kontratadun iraunkorrek edo lan kontratadun egonkorrek (irakasle osoek eta agregatuek) eta lankide iraunkorrek:

1. UPV/EHUREkin, gutxienez, bost urteko kontratu bidezko harremana eduki izana.
2. Ebaluatu beharra dagoen aldian gutxienez ondorengo irakats betebeharra eduki izana:
 - 22,5 kreditu arduraldi osoko irakasleek.
 - 15 kreditu arduraldi partzialeko irakasleek.
 - 15 kreditu eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleek, kargu akademikoan jardun edo lizentzia dutelako.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dituzte aldi baterako kontratua duten irakasleek (atxikiek, lankideek, bitarteko lan kontratadunek, elkartuek):

1. UPV/EHUREkin gutxienez hiru urteko kontratu bidezko harremana eduki izana.
2. Ebaluatu beharra dagoen aldian gutxienez 15 kredituko irakats betebeharra eduki izana.

3.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Ebaluaziorako eskaria aurkezteko epea hamaikagarren deialdiaren hasieran adierazitakoa izango da, eta deialdiaren berri informazio instituzionalaren ohiko bideak baliatuz emango da.

Eskaria egiteko, bide telematikoaz lor daitekeen inprimakia betez bakarrik egin daiteke, Docentiaz programaren aplikazioa erabilita.

Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAPa idatzi behar du aplikazioan, eta aplikazioak berak esango dio oinarrietako bigarren atalak jasotzen dituen baldintzak betetzen dituen ala ez.

Baldintzak betez gero, ebaluaziorako eskariaren datuak aktibatuko dira, eskatzaileak irakasgai bat aukeratu beharko du eta horren gainean egingo da ebaluazioaren zati bat.

Aukeratutako irakasgaiak gutxieneko baldintza hauek bete behar ditu:

- gutxienez bost ikasle izatea matrikulatuta.
- gutxienez irakasgaiaren %30 kreditu eman izana, eta irakaskuntza horrek gutxienez kreditu bat lortzea.
- irakaskuntza egoeraren txostena izatea.
- hautaketatik kanpo geratuko dira ondorengoetan emandako irakaskuntza: doktoregoa; practicuma; karrera, gradu edo master amaierako proiektuak; eta esperientzia gelak.

Irakasgai osoaren Ikaslearen Gida, emandako kredituak kontutan izan gabe (ikasleei entregatutako gida) eta ikaskuntza lan bat erantsiko dira, pdf formatuan, biak hautatutako irakasgaikoak, irakasleak irakasgaia emandako Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzetako batean (gaztelaniaz edo euskaraz). Ingelesez ere onartuko dira. Ikaslearen gidaren edota ikaskuntza lanaren zati bat aipatutako hiru hizkuntzak ez beste laugarren batean badaude, zati horren edo zati horien itzulpena sartuko da ikaslearen gidaren edota ikaskuntza lanaren amaierako eranskin gisa, eta Irakaslana Ebaluatzeako Unibertsitateko Batzordeak erabaki beharko du, duda kasuan eta arrazoiak behar bezala emanda, itzultzaile adituei itzultzeko eskatuko dien.

Ikaslearen gidak, azaldutakoez gainera, irakaslearen identifikazioa jasoko du, eta lotuta egongo da ebaluatu behar den aldi horretako hautatutako irakasgaiarekin eta emandako ikasturtearekin, 2015/16 ikasturtetik 2019/20 ikasturtera bitartekoak.

Idazteko hizkuntzak eta irakasteko ikasturte akademikoak bat etorri beharko dute Ikaslearen Gidan eta Ikaskuntza Lanan.

Nahitaez aurkeztu behar dira aipatutako ikaslearen gida eta ikaskuntza lana izeneko agiriak, adierazitako eskakizunak beterik; prozeduran exijitzen den gutxieneko bat denez, aipatutakoak aurkeztu ezean, ebaluazio prozesutik kanpo geldituko da irakaslea.

Ebaluatuak izateko baldintzak betetzen dituzten irakasgai guztiak, ikastegien eta planen arabera, kontsultatzea ahalbidetuko du aplikazioak. Hautatutako irakasgaia aldatzeko aukera emango du harik eta ebaluaziorako eskaria bidali eta erregistratu arte, eta hortik aurrera ez da onartuko hautatutako irakasgaia aldatzea.

Eskariak aurkezteko aldian behar bezala adierazita eta egiaztatutako merezimenduak bakarrik ebaluatuko dira. Agiriak Pdf formatuan egongo dira, kasu guztietan.

Irakasleak ontzat emango ditu ebaluazio eskariko datuak, eta eskaria UPV/EHUko Erregistro Orokorrean jasota geratuko da, automatikoki, zigilu eta guzti.

Behin eskaria betetzeko epea amaituta, egiaztatu egingo da ea eskatzaileak ebaluaziorako nahitaezkoztat eta beharrezkoztat jotako agiri guztiak aurkeztu dituen.

Agiriak egiaztatu ondoren, ebaluaziorako eskariaren egoera zertan den jakinaraziko da, hots, behin-behineko onarpenaren edota behin-behineko baztertzearen berri emanez eta, behin-behineko baztertzearen kasuan, horretara eraman duen arrazoa emanez. Okerrak zuzentzeko epea 5 egunekoa izango da.

4.- IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEA

Irakaslana Ebaluatzeke Unibertsitateko Batzordea (aurrerantzean CUED/IEUB) osatuko duten pertsonak Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu, ebaluazio gaietan eskumena duen errektoreordeak proposatuta eta errektoreak 4 urterako izendatuta. Ikasleen kasuan, berriz, urtetik urtera izendatuko dira. Kideen zerrenda Ebaluazio Zerbitzuaren webgunean argitaratuko da.

CUED/IEUB bere funtzionamenduko barne-arauteriaren arabera arituko da (Ebaluazio Zerbitzuaren web orrian eskuragarria).

CUED/IEUBko kide gisa egindako izendapenari ezin zaio uko egin, batzordeko kide gisa aritzea ezinbestez eragozten dion indar handiko arrazoi justifikaturik dagoenean izan ezik. Kasu horretan, ebaluazio gaietan eskumena duen errektoreordeak aztertuko du alegatutako arrazoiak, eta 5 eguneko epean ebatziko du, izendapenari uko egiteko idatzia jasotzen denetik kontatzen hasita.

Era berean, parte hartzaileek CUED/IEUB osatzen duten pertsonak errekusa ditzakete, edo horiek abstenitu egin daitezke, baldin eta 23. eta 24. artikuluetan (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) abstenitu edo errekusatzeko arrazoren bat badago.

CUED/IEUB osatzen duten pertsonak errekusatzeko epea 10 egunekoa izango da, Ebaluazio Zerbitzuaren webgunean argitaratzen denetik hasita.

Baldin eta abstenitu, errekusatu edo CUED/IEUB osatzen duten pertsonetako baten jarduna eragozteko arrazoren bat badago, behar diren neurriak hartuko dira ebaluazio prozesua justizia, gardentasun eta ekitate printzipioen arabera gauzatu dadin, betiere eskatzaileen berdintasuna bermaturik eta haien garapen profesionala eragozten duten oztopoak kendurik.

5.- EBALUAZIO PROZESUA

5.1.-IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAREN TXOSTENA

Behin gutxienerako eta nahitaezko baldintzak betetzen dituzten eskariak balioets daitezzen onartuta, eta okerrak zuzentzeko epea amaiturik, Ikastegiko Kalitate Batzordeak (aurrerantzean IKB) prozesuan parte hartzen duten eta bere ikastegiari atxikita dauden irakasleen banan banako txostena beteko du, bide telematikoz, 10 eguneko epean.

Hala, txostena eskatzeak eten egingo du prozedura ebatzeko epea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. 1 artikuluari jarraiki (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

5.2.- BEHIN-BEHINEKO EBALUAZIOAREN EMAITZA

Ikastegietako kalitate batzordeek txostenak egin ondoren, errektoreak izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitako Irakaslana Ebaluatzeke Unibertsitateko Batzordeak espedienteak bide telematikoz lor ditzake eta irakasleek, ikastegi bakoitzeko kalitate batzordeak eta ikasleek sortutako informazioa ikus dezake. CUED/IEUBk hiru hilabete izango ditu informazioa aztertu eta ebaluazioa egiteko, hori guztia izaera pertsonaleko datu pertsonalak babesteko printzipioak betez eta, egoki jotzen duenean, agiri gehiago edo azalpenak eskatzeko ahalmena berretzat erreserbatuz.

CUED/IEUBk behin-behineko ebaluazioaren emaitza ezagutaraziko du Docentiaz programa kudeatzeko aplikazioaren bidez, eta emaitza hori ebaluazio prozesuan parte hartzen duen irakasle ebaluatu bakoitzak bakarrik ikus dezake.

Ebaluazioak barne hartzen du dimentsioetako bakoitzaren balorazio kuantitatibo bat, baita irakaslearen irakaslanari buruzko amaierako balorazio kualitatibo bat ere, eta bertan aintzatespena merezi duten praktikak azpimarratzen dira, eta hobekuntzarako ekintzak adierazten dira.

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 100 puntutik 50 puntu baino gutxiago lortzen dituen.

Aldeko ebaluazioan lau kategoria sartzen dira:

- Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 50 puntu edo gehiago eta 70 puntu baino gutxiago lortzen dituen.
- Ebaluazio oso ona: ebaluazio oso ona izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 70 puntu edo gehiago eta 90 puntu baino gutxiago lortzen dituen.
- Ebaluazio gain-gainekoa: ebaluazio gain-gainekoa izango da 90 puntu edo gehiago dituen ebaluazioa, eta ebaluazio bikaina lortzeko baldintzak betetzen ez dituen.
- Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da 1., 2. eta 3. dimentsioetako bakoitzari dagokion puntuazioaren % 90 lortzen duena, faktore zuzentzaileaz biderkatu baino lehen.

Aldeko ebaluazioak, edozein kategoriatan, bost ikasturterako balioa izango du, ebaluazioa egindako azken ikasturtetik kontatzen hasita. Irakasleek beren irakaskuntzaren etengabeko ebaluazioa izan dezaten, irakasleak beren irakaslana ebaluatzeko programara berriro aurkez daitezke egin zaien azken ebaluaziotik bost ikasturte pasatu direnean.

5.3.- ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Behin-behineko ebaluazioaren emaitzei buruzko alegazioak egiteko epea 10 egunekoa izango da. Alegazioak formatu elektronikoa aurkeztuko dira DOCENTIAZ programaren bidez, horretarako diseinatutako formularioa erabilita, eta alegazioekin batera egoki jotzen diren agiriak eta justifikazioak ere aurkeztuko dira, beti Pdf formatuan. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak gutxienez 10 eguneko epea izango du alegazioak aztertu, ebatzi eta azken txostena egiteko.

6.- GORAKO ERREKURTSOA

Azken ebaluazio honen kontra gorako errekurtsua aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari. Behin-behineko ebaluazioari alegaziorik aurkeztu ez bazaio, ezin izango da gorako errekurtsorik aurkeztu.

7.- EMAITZAK ARGITARATU

Ebaluazioaren emaitzak Ebaluazio Zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira, betiere era honetara batuta: jakintza arloak, irakasleen kategoria, dimentsioak, amaierako kalifikazioa, generoa, hizkuntza eskakizuna, antzinatasuna eta adina. Ikastegiari eta Sailari zuzendutako emaitzen txosten agregatuak dagozkien arduradunei bidaliko zaizkie. Irakasleen ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordeak erabilera konfidentzialeko txostenak jasoko ditu, ebaluazio prozesuan lortutako emaitzak kontuan hartuta erabaki dezan.

Datu globalak UPV/EHUko Gardentasun Atarian ere kontsulta daitezke.

8.- PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Deialdi honi buruzko informazio guztia Ebaluazio Zerbitzuaren webgunean kontsulta daiteke.



Docentiaz

Ebaluazio Zerbitzua
Servicio de Evaluación

DOCENTIAZ

PROGRAMA DE EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD DOCENTE

**BASES DE LA UNDÉCIMA CONVOCATORIA
2021**

**ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y COMUNICACIÓN**

1.-OBJETO DE LA CONVOCATORIA

La undécima convocatoria del programa DOCENTIAZ tiene como finalidad principal reconocer y mejorar la calidad de la actividad docente del profesorado de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante UPV/EHU) y facilitar un procedimiento que aporte información fiable y contrastada sobre dicha actividad docente.

2.-DESTINATARIOS DE LA CONVOCATORIA

La presente convocatoria está destinada al profesorado de la UPV/EHU con contrato en vigor durante el periodo de solicitud de la convocatoria, tanto funcionario como contratado, en régimen de dedicación a tiempo completo o parcial. El programa afecta a todas las enseñanzas oficiales que se imparten en la UPV/EHU (Grado, Máster y Doctorado). Se excluye la docencia impartida en otras instituciones de Enseñanza Superior y en los Títulos Propios de la UPV/EHU.

En esta convocatoria se evaluarán los méritos correspondientes a un periodo de evaluación de cinco cursos académicos (2015/16 – 2019/20) con créditos reconocidos en GAUR. No podrá presentarse a esta undécima convocatoria el profesorado que tenga algún curso académico evaluado que coincida con alguno de los comprendidos en el periodo de evaluación (2015/16 – 2019/20).

Los requisitos para participar en el programa DOCENTIAZ para el profesorado funcionario de carrera, laboral permanente o contratado estable (profesorado pleno y agregado) y colaborador permanente son los siguientes:

1. Haber mantenido una relación contractual con la UPV/EHU un mínimo de cinco años.
2. Haber desarrollado, en el periodo objeto de evaluación, un encargo docente mínimo de:
 - 22,5 créditos para el profesorado que ejerce su docencia a dedicación completa.
 - 15 créditos para el profesorado que ejerce su docencia a dedicación parcial.
 - 15 créditos para el profesorado que está exento de docencia por motivo de dedicación a cargo académico o licencia.

Los requisitos para participar en el programa DOCENTIAZ para el profesorado cuyo contrato sea temporal (profesorado adjunto, colaborador, laboral interino, asociado) son los siguientes:

1. Haber mantenido una relación contractual con la UPV/EHU un mínimo de tres años.
2. Haber desarrollado, en el periodo objeto de evaluación, un encargo docente mínimo de 15 créditos.

3.-PLAZO Y FORMA DE PRESENTACIÓN

El plazo para la presentación de la solicitud de evaluación será el señalado en el momento de apertura de la undécima convocatoria, a la que se dará publicidad por los canales habituales de información institucional.

La solicitud se cumplimentará exclusivamente mediante el formulario que será accesible por vía telemática, a través del aplicativo del Programa Docentiaz.

El personal docente que desee participar introducirá su LDAP en el aplicativo y será informado de si cumple con los requisitos señalados en el segundo apartado de las bases.

En caso afirmativo, seguidamente se activarán los datos de la solicitud de evaluación y la persona solicitante deberá elegir una asignatura sobre la que se realizará parte de la evaluación.

La asignatura elegida deberá reunir los siguientes requisitos mínimos:

- un mínimo de cinco estudiantes matriculados.
- haber impartido al menos el 30% de los créditos que componen la asignatura, y que esta docencia alcance un crédito.
- disponer de Informe de Situación Docente.
- se excluye de la selección la docencia impartida en Doctorado, Practicum, Proyectos Fin de Carrera, de Grado o de Máster y Aulas de la Experiencia.

Se deberá adjuntar la Guía para el Alumnado de la asignatura en su totalidad, con independencia del porcentaje de créditos impartidos (guía entregada al alumnado) y una Tarea de Aprendizaje, en formato pdf, ambas de la asignatura elegida, en alguno de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca (castellano o euskera) en el que impartió la asignatura; también se admitirán en inglés. En el supuesto de que parte de la Guía para el Alumnado y/o Tarea de Aprendizaje estuviera redactada en idioma distinto de los tres mencionados, se incluirá traducción de dicha/s parte/s, como documento anexo final a la Guía para el Alumnado y/o Tarea de Aprendizaje, quedando a la valoración, debidamente fundamentada, de la Comisión Universitaria de Evaluación Docente solicitar, en caso de duda, traducción a personal experto traductor.

La Guía para el Alumnado, además, incluirá identificación del profesor/a, corresponderá a la asignatura seleccionada y a curso impartido dentro del periodo objeto de evaluación (2015/16-2019/20).

El idioma de redacción y curso académico de impartición deberá coincidir en la Guía para el Alumnado y la Tarea de Aprendizaje.

La aportación de los documentos calificados de Guía para el Alumnado y Tarea de Aprendizaje, con los requisitos indicados, tiene la consideración de documentación preceptiva, constituyendo un mínimo procedimental cuya ausencia causará la exclusión del proceso de evaluación.

El aplicativo posibilitará la consulta, por centro y plan, de todas las asignaturas que cumplen los requisitos señalados para ser evaluadas, permitiendo el cambio de la asignatura seleccionada hasta el momento de envío y registro de la solicitud de evaluación, momento a partir del cual no se admitirá modificación en la selección de la asignatura.

Solo serán evaluados los méritos debidamente indicados y acreditados, en formato pdf, en el periodo de solicitud.

La persona solicitante interesada dará el visto bueno a los datos de la solicitud de evaluación y automáticamente quedará registrado y sellado por el Registro General de la UPV/EHU.

Finalizado el plazo para rellenar la solicitud, se verificará que la persona solicitante ha adjuntado todos los documentos calificados como preceptivos y necesarios para la evaluación.

Realizada la verificación, se dará comunicación sobre el estado de la solicitud de evaluación, indicando la situación de admisión provisional o exclusión provisional y señalando, en caso de exclusión provisional, la razón que lo motiva. Se abrirá un plazo de subsanación de 5 días.

4.-DE LA COMISIÓN UNIVERSITARIA DE EVALUACIÓN DOCENTE

La Comisión Universitaria de Evaluación Docente (en adelante CUED/IEUB) estará formada por las personas que, ratificadas por el Consejo de Gobierno, a propuesta del Vicerrector o de la Vicerrectora competente en materia de evaluación, son nombradas por el Rector o la Rectora por un periodo de 4 años; excepto en el caso del alumnado, que se nombrará cada año. La relación de integrantes se publicará en la página Web del Servicio de Evaluación.

La CUED/IEUB se regirá por su Reglamento interno de funcionamiento (Disponible en la página web del Servicio de Evaluación).

El nombramiento como integrante de la CUED/IEUB es irrenunciable, salvo cuando concurra de manera sobrevenida causa justificada de fuerza mayor que impida su actuación como parte de la misma. En este caso, la apreciación de la causa alegada corresponderá al Vicerrector o Vicerrectora competente en materia de evaluación, quien resolverá en el plazo de 5 días a contar desde la recepción del escrito de renuncia.

Asimismo, las personas participantes podrán recusar a las personas que integran la CUED/IEUB, o estas abstenerse, en el caso de que exista algún motivo de abstención o recusación de los previstos en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El plazo para recusar a las personas que integran la CUED/IEUB será de 10 días, desde su publicación en la página Web del Servicio de Evaluación.

En los casos en que se aprecie motivo de abstención, recusación o cualquier otra causa que impida la actuación de alguna de las personas integrantes de la CUED/IEUB, se adoptarán las medidas oportunas para que el proceso de evaluación se ajuste a criterios objetivos de justicia, transparencia y equidad, garantizando la igualdad de las personas solicitantes, y eliminando obstáculos que impidan su desarrollo profesional.

5.-PROCESO DE EVALUACIÓN

5.1.-INFORME DE LA COMISIÓN DE CALIDAD DEL CENTRO

Admitidas a evaluación las solicitudes que cumplan los requisitos mínimos y preceptivos, una vez transcurrido el plazo de subsanación, la Comisión de Calidad del Centro (en adelante CCC) cumplimentará informe individual correspondiente al personal docente adscrito a su Centro que participa en el proceso, por vía telemática, en el plazo de 10 días.

Dicho traslado con la petición de informe supondrá, conforme al artículo 22.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la suspensión del plazo para resolver el procedimiento.

5.2.-RESULTADO DE LA EVALUACIÓN PROVISIONAL

Emitidos los informes por las CCCs, la CUED/IEUB, nombrada por el Rector / la Rectora y ratificada por el Consejo de Gobierno, tendrá acceso telemático a los expedientes con la información generada por el personal docente solicitante, la CCC de cada Centro y el alumnado. La CUED/IEUB contará con un plazo de tres meses para analizar la información y emitir la evaluación, respetando los principios de protección de datos de carácter personal, y reservándose la facultad de pedir documentación adicional o aclaración, cuando lo estime pertinente.

La CUED/IEUB dará a conocer, a través del aplicativo de gestión del Programa Docentiaz, el resultado de la evaluación provisional, al que de forma exclusiva y personal tendrá acceso cada docente participante en el proceso de evaluación.

La evaluación incluye una valoración cuantitativa acerca de cada una de las dimensiones, así como una valoración cualitativa sobre la actuación docente del profesor o de la profesora en la que se destacan aquellas prácticas merecedoras de reconocimiento, e indicando posibles acciones de mejora.

- Evaluación desfavorable: se considera evaluación desfavorable aquella que obtiene menos de 50 puntos, del total de 100, en la evaluación final del profesor o de la profesora.

En la evaluación favorable se cuentan cuatro categorías:

- Evaluación aceptable: se considera evaluación aceptable aquella que es mayor o igual que 50 puntos y menor que 70 puntos en la evaluación final del profesor o de la profesora.
- Evaluación notable: se considera evaluación notable aquella que es mayor o igual que 70 puntos, y menor que 90 puntos.
- Evaluación sobresaliente: se considera evaluación sobresaliente aquella que es mayor o igual que 90 puntos, y no cumple las condiciones para obtener una evaluación excelente.
- Evaluación excelente: se considera evaluación excelente aquella evaluación que obtenga el 90% de la puntuación correspondiente a cada una de las Dimensiones 1, 2 y 3, antes de aplicar el factor corrector.

La obtención de evaluación favorable, en cualquiera de sus categorías, tendrá una vigencia de cinco cursos académicos, contados a partir del último curso académico sometido a evaluación. Con el fin de que el personal docente cuente con una evaluación continuada de su docencia, el/la docente podrá presentarse de nuevo al programa para valorar su labor docente cuando transcurra un periodo de cinco cursos académicos desde su última evaluación.

5.3.-PROCEDIMIENTO DE ALEGACIONES

El plazo de alegaciones sobre el resultado de la evaluación provisional será de 10 días. Dichas alegaciones se presentarán en formato electrónico a través del aplicativo de DOCENTIAZ, utilizando formulario diseñado al efecto y, junto con ellas, se podrán presentar los documentos y justificaciones que se estimen pertinentes; siempre en formato pdf. La CUED/IEUB dispondrá, al menos, de 10 días para analizar y resolver las alegaciones recibidas y emitir la evaluación final.

6.-RECURSO DE ALZADA

Contra esta evaluación final se podrá interponer recurso de alzada ante el Rector o la Rectora de la UPV/EHU. No podrá interponerse recurso de alzada si no se han presentado alegaciones a la evaluación provisional.

7.-DIFUSIÓN DE RESULTADOS

Los resultados de la evaluación agregados por áreas de conocimiento, categoría de profesorado, dimensiones, calificación final, género, perfil lingüístico, antigüedad y edad, se harán públicos en la página web del Servicio de Evaluación. Los Informes de resultados agregados dirigidos al Centro y Departamento serán remitidos a sus correspondientes responsables. El Vicerrectorado competente en materia de evaluación docente recibirá informes de uso confidencial, con el objeto de tomar decisiones derivadas de los resultados obtenidos en el proceso de evaluación.

La consulta de datos globales también será posible a través del Portal de Transparencia de la UPV/EHU.

8.-INFORMACIÓN SOBRE EL PROGRAMA

La información completa relativa a la convocatoria estará accesible en la página web del Servicio de Evaluación.